

ADITZA INDIKATIBOA

nor nori (orain)

	NOR			NORI
<i>Ni</i>	na	tzai		t
<i>Hi</i>	ha	tzai		k / n
<i>Hura</i>		zai		o
<i>Gu</i>	ga	tzai	zki	gu
<i>Zu</i>	za	tzai	zki	zu
<i>Zuek</i>	za	tzai	zki	zue te
<i>Haiek</i>		zai	zki	e

NOR-NORI

Gaur atsedenean ni hari hamaiketako eskatzera inguratu_____.

2- Ni ez hiri inguratu. Hori ikusita, hi niri gerturatu_____.

3- Gu hiri esnatu ; haiei, aldiz, Mikel esnatzea ahaztu_____.

4- Gu ez , inola ere, haiei gerturatu_____.

5- Aurten guri ez umeak abestera etorri_____.

6- Hi Patxiri joan _____ etxerako lanak ematera.

7- Zuei kolorinetako boligrafoak ikaragarri guztatzen _____.

8- Leire eta Martin zuei diru eske joan _____ gaur.

9- Matematikako klasean hi niri etengabe hizketan ari _____.

10- Leire, aspertuta dagoenean, niri hizketan hasten _____ beti.

11- Oraindik ikasleei ez ikastola amaitu; aste batzuk falta_____.

12- Gu zuei inguratu _____ haiek borrokan hasi direnean.

NOR-NORI (lehen)

NOR			NORI		
<i>Ni</i>	nin	tzai		da	n
<i>Hi</i>	hin	tzai		a / na	
<i>Hura</i>	zi	tzai		o	n
<i>Gu</i>	gin	tzai	zki	gu	n
<i>Zu</i>	zin	tzai	zki	zu	n
<i>Zuek</i>	zin	tzai	zki	zue te	n
<i>Haiek</i>	zi	tzai	zki	e	n

NOR-NORI (LEHEN)

Ni Maialeni baloia botatzen ari _____ bera erori zenean.

2. Josu niri ate-joka ari _____goizeko ordu bietan .

3. Unai bere lagunei hitz jarioa botatzen ari _____ beraiekin elkartu nintzenean.

4. Gu gure familiako adiskideari gure ezkontzako eguna azaltzen ari lehengusinak etorri zirenean.

5. Guri etxeko giltzak leihoko loreontzian erori_____ .

6. Hi niri masajea ematen ari_____ nire emaztea etorri zenean.

7. Guri bizikleta mendiko putzu batean trabatuta gelditu_____ .

8. Zuek niri bisita egitera etorri . _____

9. Ni nire semearen gelakideei nire lanaz hitz egiten ari zuzendaria sartu zenean.

10. Gu hiri galdezka joan_____ .

11. Ni zuri txantxa bat egiten ari _____ gitarra jotzen ari zinen bitartean.

12. Zuek agure zahar hari hurbildu _____ atzo goizean.

Gosetu nintzenean, Mikeli janari eske hurbildu _____ .

2. Koldo lasaitu zenean Itsasori barkamena eskatzera joan _____ .

3. Zuek arrandegi batean lan egiten bazenuten ere, lehen ez _____ arrainak gustatzen.

4. Hi Aneri gerturatu _____ atzo, hire babesak behar zuela konturatu hintzenean.

5. Gu atzo filosofiako irakasleari galdezka joan _____ .

6. Atzo zuek guri inguratu _____ zerbait kontatzeko asmoz.

7. Haiek niri diru eske hurbildu _____ , gozoki batzuk erosteko behar baitzuten.

8. Xabier atzo hari gerturatu _____ azterketako galderak zeintzuk ziren jakiteko asmoz.

9. Julen niri gai interesgarriari buruz mintzatu _____ aurreko astean.

10. Lehengo urtean, lehengusuak osaba-izebei hitz egiteko asmoz gerturatu _____ .

NOR-NORK (ORAIN)

	NOR			NORK
<i>Ni</i>	na		u	t
<i>Hi</i>	ha		u	k / n
<i>Hura</i>	d		u	
<i>Gu</i>	ga	it	u	gu
<i>Zu</i>	za	it	u	zu
<i>Zuek</i>	za	it	u	zte
<i>Haiek</i>	d	it	u	te

- Nik askotan ikusi _____ zuek lurrean botata.
- 2.- Zuek ez _____ filosofiako azterketarako ezer ikasi.
- 3.- Leandrok zu atera _____ lantegitik gaur goizean.
- 4.- Maitek pasteltxo guztiak jan _____ .
- 5.- Gaur goizean mutil haiek gu tabernatik bota _____ .
- 6.- Guk hi amildegian behera bultzatu _____ .
- 7.- Skin Head haiek ni gupidarik gabe jo _____ .
- 8.- Nik zerriak gorroto _____.
- 9.- Mikelek, etxera iristean, Karmele jo .
- 10.- Apaizak eliztarrak oso maite _____ .
- 11.- Nik zuek askotan mespretxatzen _____ .
- 12.- Haiek hi zapaldu . _____

Zuk gu askotan ikusi _____ mendian.

2. Kaletik gindoazela, guk Leire ikusi .

3. Nik zuek ere ez _____ maite.

4. Poliziek hi Londreseko kaleetatik zehar ikusi _____ .

5. Zuek ni behin eta berriz deitu _____ kalera ateratzeko.

6. Atzerritarrek zuek hemen behar _____ herria erakusteko.

7. Hik gu deitu _____ zinera joateko asmoz.

8. Haiek ni jo egin _____ arrebari panpina kentzeagatik.

9. Mirenek zu maite _____, nahiz eta zuk ezetz esan.

10. Zuek ni ikastolara kotxez eraman _____

NOR-NORK LEHEN

1. eta 2. pertsonak:

	NOR			NORK	
<i>Ni</i>	nind	u		da	n
<i>Hi</i>	hind	u		a / na	n
<i>Hura</i>					en
<i>Gu</i>	gint	u		gu	n
<i>Zu</i>	zint	u		zu	n
<i>Zuek</i>	zint	u	zte	zue	n
<i>Haiek</i>				te	n

3. pertsonak:

	HURA	HAIEK
<i>Ni</i>	nuen	nituen
<i>Hi</i>	huen	hituen
<i>Hura</i>	zuen	zituen
<i>Gu</i>	genuen	genituen
<i>Zu</i>	zenuen	zenituen
<i>Zuek</i>	zenuten	zenituzten
<i>Haiek</i>	zuten	zituzten

1. Nik zu kotxez eraman_____.
2. Goxokia lapurtu zuenez, amak semeak jo_____.
3. Zuzendariak zu ikastolatik bota_____.
4. Zirujanoak zuek apendizitisetik operatu _____.

5. Guk andereñoa miresten_____ .
6. Otsoek ardiak jan_____ .
7. Hik etxerako lanak egin_____ .
8. Zuek txikitan gurasoak asko maite_____ .
9. Festara joan eta ia pastel guztia jan_____ nik.
10. Igandean mendira joan ginen eta hamaika kilometro oinez egin_____ .
11. Hark gu ia jipoitu_____ .
12. Nire arrebak eraman_____ al hi Lazkaora ?

- Zuk gu lehengo astean mendian ikusi_____ .
2. Atzo kaletik gindoazela, guk Leire ikusi_____ .
 3. Txikitan, nik zuek ere ez maite_____ .
 4. Ezagun haiek hi Londreseko kaleetatik zehar ikusi _____ duela bi urte.
 5. Zuek ni behin eta berriz deitu_____ kalera ateratzeko bart.
 6. lazko udan, atzerritarrek zuek hemen behar_____ herria erakusteko.
 7. Hik gu deitu_____ zinera joateko asmoz asteazken gauean.
 8. Haiek ni jo _____egin atzo arratsaldean, arrebari panpina kentzeagatik.
 9. Mirenek zu maite_____ duela gutxi arte, nahiz eta zuk ezetz esan.
 10. Zuek ni ikastolara kotxez eraman_____ lehengo hilabeteen.

NOR-NORI-NORK (ORAIN)

	NOR	NORI	NORK
<i>Ni</i>	d i(zki)	t (da)	t
<i>Hi</i>		k / n (a / na)	k / n
<i>Hura</i>		o	
<i>Gu</i>		gu	gu
<i>Zu</i>		zu	zu
<i>Zuek</i>		zue	zue
<i>Haiek</i>		e	te

- 1.- Errugbi jokalariek guri urrezko baloi bat ekarri_____.
- 2.- Irakasleak zuri zaplaztekoa eman_____.
- 3.- Guk zuri daukazun guztia kenduko_____.
- 4.- Zuzendariak guri sekulako garrasiak egin_____.
- 5.- Zuek guri Mallorcatik likorea bidali_____.
- 6.- Okinak irina oso merke erosi _____ gizon arabiarrari.
- 7.- Guk zuri eskalatzeko materiala eskatu_____.
- 8.- Hik nire arrebari patinatzeko botak ekarri_____.
- 9.- Saharara joaten garenean, bertako haurrei jostailuak eramaten_____.
- 10.- Zuek baserritarrei simaurra saltzen_____.
- 11.- Nik arrainei pentsua bota_____.
- 12.- Guk zuei kartak saldu_____.

1. Gaur goizean, gure bizilagunak behar-beharrezkoa zuen irina eskatu_____ .
2. Irakasleek goizean non egon naizen galdetu_____ .
3. Goizean, Amaiak, Mikelek eta nik aurrekoan loritzek egin zuen tartaren errezeta eskatu_____ bere amari.
4. Karmelek hiri ordenagailuaren pasahitza emateko eskatu_____ .
5. Futbol taldekoek elkartean afaria antolatu dutela jakinarazi_____ saskibaloikoei.
6. Zuk Marinari esan_____ astakeriak sekulakoak dira.
7. Goizean, etxean sartu diren lapurrek logelan zenuen amonaren urrezko lepokoa lapurtu_____ .
8. Gaur goizeko partiduan, teniseko jokalariek kiroldegiko zuzendariari adarra jo_____ .
9. Udararo etortzen diren ingelesek nire oporraldi preziatuak hondatzen _____ niri.
10. Gaur arratsaldean, ikaskideok eskolako irakasleei liburu berriak eraman_____ .